

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Jarduera Ekonomikoen gaineko 2022ko Zerga kobratzea

Unai Gutiérrez Urkizak, Arabako Lurralde Historikoko Zuiako Udaleko alkate lehendakariak,

Jakinarazten dut: 2022ko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren ordainagiriak ordaintzeko moduan egongo direla, borondatezko epean, 2022ko irailaren 15etik azaroaren 15era, egun biak barne, egun balio dunetan, larunbatetan izan ezik.

Zerga horren eraginpekoek, ordainketa inongo banketxetan helbideratuta ez badute, Kutxa-banken edozein bulegotan ordaindu ahal izango dituzte zerga zorrak, aurkeztuz etxean jasoko duten ordainagiri abisua; abisua jaso ezean, Zuiako udal idazkaritzan eskatu beharko da.

Zergapekoei ohartarazten zaie komeni dela zerga zorrak banketxe edo kutxetan helbideratuta izatea.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bideari emango zaio hasiera, hala xedatzen baitute Zergen Foru Arau Orokorrak eta Dirubilketarako Arautegi Orokorrak, eta ordaindu gabeko kuotak dagokion errekgua gehituta (ehuneko 10 edo ehuneko 20) kobratuko dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Murgia, 2022ko irailaren 27a

Alkate- lehendakaria

UNAI GUTIÉRREZ URKIZA